

ALKATEARI

Talde Popularreko zinegotzi Vanessa Velez de Pablosek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Dbusek San Tomas Egunean gauez zerbitzurik ez ematea dela eta aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

San Tomas egunean ez dago autobus zerbitzurik gauez.

Gure talde politikoak bigarren aldiz ere galdetu, eta Mugikortasuneko zinegotzi Olatz Yarzak batzordean erantzun zigun zerbitzu hori ostiraletan, larunbatetan eta jaiegun bezperetan bakarrik ematen dela.

Hala, Santo Tomas eguna ez da jaieguntzat hartzen eta, beraz, ez da Dbusen zerbitzurik izaten gauez.

Santo Tomas Eguna jaieguntzat hartzen ez bada ere, ukaezina da Donostian jende ikaragarrik ospatzen duela egun hori, baita aste izanda ere.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio jartzeko gaueko autobus zerbitzua San Tomas egunean.

2. Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio aztertzeko jende asko biltzen den beste egun batzuetan ere –ostegunetan, Erdialdean eta Grosen pintxo-potea izaten dean, esate baterako– Dbusen gaueko zerbitzua jartzea edo, gutxienez, auzo horietako autobusen ordutegia handitzea.

Donostian, 2025eko urriaren 22an

Vanesa Velez De Pablos
Udal Talde Popularreko zinegotzia